

DESOLATIO
Mikel Ayllon
Laudio, 17 urte

mortuetako duna hareatsuetan
oasietara bidean doazen gamelu iladak
eguzki eta kaktusen arteko begirada kurutzaketak
ezpata ausartak bihotz deslaidetan penetratu eta
eiakulatu
noiznahi harea
gezalik gabeko hondartza luzeak
eta itsasoa zerua
 urdina
arrainik gabeko airea
haizean urrikalik gabeko hots itsuak
oihuka garaituak urkamendi bidean

gameluak oasian ito dira

zaldun abandonatuak ikusmugarantz
hotza barreiatuz beren gibeletan
ez da izanen gehiago zerua itsasoa
 iluna
harri gris inperfektuak uzkurto
kaktusak lotara
erratzak zeru biluzia ortuzik zeharkatuz
eta ilargiari zatiak erortzen hasi zaizkio
dunetan surfistak neoprenotan
ziztu bizian zeharkatu zerua
tiro hots fermu batek

kaktus bat odoletan hasi da

milaka eta bat merkatari gamelutan
eguzkia ilargiarekin sartu ohantzean
inurri tropelak gerrara
kantu arabiar ustelduak haizea urratuz
eta hegazkin amerikanoak norabait
zakur bat
zazpigarren turuta jotzear
oinatz anitz desesperantzaren lurraldeetara
hegalen atzetik txori migrariak ortzean
utzi dio bero egiteari
aho bat ura edan asmoz

apokalipsia besterik ez zitzaigun falta

agortu dira haizearen ferekak
oasietan ura odol bihurtu
tanke errusiarrak bandera gorriak paseatuz
estrainekoz desolazio liparrak
panpinen keramikazko bisaia inanimatuetan
dortoka bat pauso motelean
indiarren gezi arrotzak hanka biluzietan
antigoaleko lamia akelarreari so
bi gazte larrua jotzen
Koran-aren eskuizkribu bat orojaileen jaki
haize ekaitza gertu
Zeusen haserrea tximista gosetietan
hiru kurutze eternitateari agur esaten
behingoz kamalehoi itsu bat

eta mastan bandera pirata

seguru nehor ez dagoela kristalaz bestaldean zain

ihes egin dut